

Txillardeggi

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak borrokan hamabost urte daramatzala eta, hauen gainean mintzatzeko Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegirengana' jo dugu. Hizpide izan ditugu elkarte sortu zeneko faktoreak, euskararen etsaiak, normalizazioa lortzeko beharrezko plangintza eta, azken finean, borrokan jarraitzeko arrazoiak.

«EHE sortzera bultzatu gintuzten arrazoiek hor diraute gaur egun»

ARANTXA ERASUN / DONOSTIA

Duela 15 urte Euskal Herrian Euskaraz sortzera bultzatu zituzten faktoreek badiraute argi du sortzaileetarikoa bat izan zenak. EHEk, beraz, izateko arrazoirik du oraindik: «Zentzu eta alor batzuetan aurreratu da euskararen normalizazioan, baina diglosiak hori dirau». Izan ere, euskarak «ez-beharrezko» eta gaztelerak eta frantsesak «beharrezko» izaten jarraitzen duten bitartean borrokaren beharra dagoela azpimarratu du.


1979ko agirian diglosia gainditzeko saiatzen ziren bakarrak ikastolak, alfabetatze mugimendua eta kultur taldeak zirela azpimarratu zuten, alderdi abertzaleek beraiek ere «euskara marjinatu eta zokoratu» egiten baitzuten. «Hori horrela da oraindik», dio Txillardegik. «batez ere instituzio ofizialetan erabilpena oso murrizta da». Hori frogatzen duten adibideak, gainera, ez zaizkio amaitzen: «Euskal Herriko Unibertsitatea deritzazionean, esaterako, errektore, dekanok edo edozein kargutan daudenak ez dira euskaldunak eta ez da ezer gertatzen». Beste eratako instituzioetan ere horrelakoa ikusten du egoera. «Euskal Herrian Euskaraz sortu zenean bezala orain ere lotsagabeki alkate eta Udaletako langile erdaldunak ditugu, alderdi askok euskararekiko duten jarrerari esker».

Euskal Herrian Euskaraz sortzeko ekimena nafarrena izan zela batez ere azpimarratu nahi du: «Sagrario eta Jon Aleman izan ziren ni deitu nindutenak talde bat sortzeko asmoarekin», eta herrialde guztietako jendearekin jarri ziren martxan ondoren, Txillardeggi barne. «Ni nintzen zaharrena guztietatik, baina ekimena ez zen nirea izan, nafarrei esker abiatu ginen erakundea osatzera».

Hasieratik eman zioten euskarari izaera politikoa, abertzaletasunari kontentzioa ematen

«Ni nintzen zaharrena, baina ekimena ez zen nirea izan, nafarrei esker abiatu ginen erakundea osatzera».

«Alderdietan gauza bat esan eta bestea egiten da, euskarari buruz hitzegin baina honen normalkuntzarako inolako biderik jartzen ez dutenez ari naiz».



EHuko irakaste da egun Txillardeggi. A. GILLENEA

«Gaur egun ere salaketa izaerari etsi behar dio, arazoak planteatzea baita EHEren zeregina».

zior elementutzat hartuz. Baina Txillardegik izaera politikoa besteek ematen diotela uste du: «Euskaldunen aurka daudenez politizatzen dute euskara. Unidad Alavesa eta PP bezalako alderdiek ez dute inolaz ere disimulatzen aurkako jarrera hori». PSOEen, aldiz, badira Mario Onaindia bezalakoak «aurkako jarrera hori bigundu dutenak, euskarari leku bat behintzat ireki diotenak». Hala ere, «ezin da ahaztu Redondo Terreros bezalakoak ere hor direla, alderdi sozialistan garrantzi handiko pertsonak eta euskararen alde inolaz ere egiten ez dutenak».

Euskal Herrian Euskaraz sortzerakoan abertzaletasunak euskarara zuela oinarritat aldarrikatu zuten, alderdi abertzaleek ere alde batera utzita zutela ikusirik. Gaur egun ere «alderdietan gauza bat esan eta bestea egiten da. Alderdi abertzaleez ari naiz, noski, euskarari buruz hitzegin baina honen normalkuntzarako inolako biderik jartzen ez dutenez». Horren adierazgarri jotzen du Jon Azua, adibidez, «euskaraz ez dakien pertsona izaki, diotenez lehendakariaren konfiantzako kidea izatea EAJk hor jarri duelako». Errealitate honen aurrean, besterik esaten badute ere, «argi dago euskarak eta euskaldunok nahikoa zailtasun izaten jarraituko dugula hauen eskuetan. Esan, ordea, besterik esango dute, noski».

EHEk sortu zeneko agiria kaleratu eta bi urtera hizkuntz plangintzaren teorizazioari ekin zioten taldekie-deek, «euskararen etorkizuna era arrazional eta zientifikoki antolatzeko ekintza programa bat beharrezkoa zelako». Asmo hori agertu zutenetik hamahiru urte inguru igaro direnean, normalizazioaren plangintza hainbat arlotan gutxiago edo gehiago gauzatu dela iritzi dio Txillardegik. «Normalizazioaren korpusa eta estatusa ezberdindu



Hizkuntza minoritario hainbaten egoera ikertu du. ANDER GILLENEA

beharra dago, bi hauen bilakaera ezberdina izan delako». Korpusari dagokionez, bere ustez «oso aurreratuta dago normalizazioa alderdi honetan, hizkuntza formalki prestatzeko lan handia egin da eta egun ia edozein arlori aurre egiteko prest da». Hala ere, ahazko euskararen normalizazioa litzateke korpusaren aldetik oraindik betetzeko dagoen hutsune nagusia bere ustez. «Estatusari dagokionez, ordea, egin behar handia» dagoela deritzo, duarik gabe. «Korpus horren gauzatzean, euskararen erabileran dugu oraindik lan handiena, euskara beharrezkotzat ez baita jotzen». Alkate izateko edo unibertsitatean kargurik izateko euskarak «ezertarako balio ez duen bitartean» arlo hori jorratzearen beharra izango dela uste du.

SALAKETA ETA BORROKA IZAERA

Euskal Herrian Euskaraz elkartearen izaera berezia izan zen hasieratik. «salaketa talde» bezala definitu baitzuten. «Gaur egun ere izaera hori etsi behar dio, gainera, arazoak planteatzea baita EHEren egin beharra». Salaketa talde izateak elkarteari berari mugak jartzen dizkiola ere aitortu du: «Hala ere, mugak besteen ikuspegieta daude. Kontserbadoreak direnek gaizki ikusten dute horrelako borroka, salaketa borroka», baina horrek elkartearen funtzioa inolaz ere zailtzen jartzen ez duela iritzi du. Alderantziz, «hau borroka bat da azken finean eta beharrezkoa da horrela izatea». Are gehiago, batzuk salaketa jokaera ez

onartzea «kultura faltaren ondorio da. Borroka linguistikoak arazo latzak sortu izan ditu leku guztietan, baina hemen batzuei gogorregi iruditzen zaie». Greziako adibidea oso esanguratsutzat jo du, mende hasierako borroka linguistikoetan «hildakoak eta guzti izan baitziren», laztasunaren adierazle garbi.

TALDE BERRIEN ERAGINA

Txepetxeren aportazio teorikoak eragin nabarmena izan zuten euskararen herri mugimenduan 80ko hamarkadako bigarren erdialdean. Honen tesiei jarraiki, dinamika berria hartu zuten euskara elkarteek eta EHEk berak ere bai. Txillardegiren ustez, «aportazio teorikoa oso garrantzitsua izan zen, oso ikusmolde kritikoa zen eta». Honen irizpidea inportantetzat du oso, Alacantekoak izaki euskaraz ikasi eta bizitzeko ahalgina egin duen pertsona baita: «Bere etxean dena euskaraz egiten dute, nahiz eta emazteak eta berak jatorriz Alacant eta Andaluziakoak izan».

Hala ere, Txepetxeren teoriaren inguruan sortu diren talde hauekin desadostasunik ere badu: «Alderdi politikoz guztiak zaku berean sartzen dituzte» eta ez deritza hori justua denik. Izan ere, «ezin dira jarri maila berean alderdi bakoitzaren hutsuneak, egurra proportzioan eman behar zaie». Ildo horretan, oso argi du Euzko Alderdi Jeltzalea salatu behar dela, «neutrotasun horretan ezin baita horrela erori».

«Instituzioen borondatea beharrezkoa da»

A E / DONOSTIA

Euskararen normalizazioak hainbat aurrerakuntza izan badu ere, eronkak zutik dirau eta aurrera egiteko bideak behar dira. Normalkuntzaren bidean aurrera egiteko, gizarte presioaz eta herri mugimenduen elkarlanaz gain, Txillardegik beharrezkotzat jotzen du instituzioen aldetiko borondate politikoa. Are gehiago, «instituzioen eta herri mugimenduaren arteko adostasuna bideratu beharra dagoela», azpimarratu du.

Dena den, instituzioek orain arte izan duten jokaera ikusita, ez da oso baikor agertu: «Ez dakit ba ote dagoen itxaropenerako arrazoirik, baina». Izan ere, EUSKALDUNON EGUNKARIAren kasuan, esaterako, Jaurilaritzaren portaera ezin argigarriagoztat du. «Instituzioek euskarazko egunkari bakarrari blokeo eta boikot osoa egin zioten ezbaiz gabe, eta horrelakoek interes politikoak hizkuntz interesen gainetik jartzen dituztela argitzen dute, inongo zalantzarik gabe».

Azken finean, erakunde publikoen jokaeran hauen pentsakeraren isla nabaritu du: «Beraiek bezala pentsatzen ez duten guztiak kolore berdinekoak direla uste dute». Txillardegik euska-

raren aldeko lana egiten duten asko «kolore» horretakoak direla onartu du, baina Jaurilaritzak horrelakoak leporatzea arbuia-garria iruditzen zaio. Izan ere, «ikastolaren kasuan berdin gertatu da, instituzioak izan baitira euskal eskola publikoaren prozesu guztian hauen aurka jo dutenak». Borondaterik ezaren adierazgarritzat du Jaurilaritzak hezkuntzaren ardura PSOEren esku utzi izana. «Horrelakoetan, oso zaila iruditzen zait herri mugimendu eta instituzioen arteko adostasuna iristea». Ondorioz, itxaropen hauen aurrean, herri mugimenduak ditu esperantza bakar.

ERABILERA ETA EZAGUTZA

Normalizazioa lortzeko bidean hasiera batean erabilera azpimarratzen zuten batez ere, «baina urte hauetan ikusi dugu eta EKBren azken ikerketaren emaitzek horrela adierazi dute, erdaldun kopurua txikituz lortuko dugula erabilpena azkartzea». Beraz, ezagutzari garrantzia emateko garaia iritsia dela uste du, «euskalduntzea eta alfabetatzea bultzatu behar ditugu gure helburua lortu ahal izateko».



Txillardegik herri mugimenduetan du esperantza. ANDER GILLEANA

Euskalduntzeak oso larritzat jotzen dituen hainbat egoera eragotziko dituelako du berebiziko inportantzia: «Aski da erdaldun bat dagoelako hamar euskaldunek erdaraz mintzatu behar izateaz». Horiek euskaldundu egin behar ditugu, beraz, «bestela erdaldunen diktadura da hau», euskararen etsai amorratuak honen kontrako esaten badute ere.

Horren haritik, euskaraz bizitzea posible dela frogatzen duten elkarrekin positibotzat ditu. Udal Euskaldunen Mankomunitatea kasu. Dena den, UEMAREN kasuan batez ere «izaera testimoniala» duela uste du. Herri txikiez osatuta dagoenez, eragin garrantzitsurik ezin duela izan azpimarratu du. Haatik, horrelako erakunde batean ikusten du etorkizunerako itxaropena: «Herri handietara, hiriburuetara esaterako, mugimendu hau iristea lortzen badugu, orduan lor dezake garrantzia erakundeak». Alde horretatik, itxaropentsu ageri da Txillardegik, pisu handiagoko herriak bilduko balira bide egokia litzatekeelakoan. «Hori zaila izango da, ordea» bere ustez.

«Horiek euskaldundu egin behar ditugu, bestela erdaldunen diktadura da hau, euskararen etsai amorratuak kontrako esaten badute ere».

0		1		2		3		4		5		6		7		8		9	
01600.....55.000	01601.....50.000	01602.....50.000	01603.....50.000	01604.....50.000	01605.....50.000	01606.....55.000	01607.....50.000	01608.....55.000	01609.....50.000	01610.....55.000	01611.....50.000	01612.....50.000	01613.....50.000	01614.....50.000	01615.....60.000	01616.....55.000	01617.....50.000	01618.....55.000	01619.....50.000
01620.....55.000	01621.....50.000	01622.....50.000	01623.....50.000	01624.....50.000	01625.....50.000	01626.....55.000	01627.....50.000	01628.....55.000	01629.....50.000	01630.....130.000	01631.....50.000	01632.....50.000	01633.....50.000	01634.....50.000	01635.....50.000	01636.....55.000	01637.....50.000	01638.....55.000	01639.....50.000
01640.....55.000	01641.....50.000	01642.....50.000	01643.....50.000	01644.....50.000	01645.....50.000	01646.....55.000	01647.....50.000	01648.....65.000	01649.....50.000	01650.....55.000	01651.....50.000	01652.....50.000	01653.....50.000	01654.....50.000	01655.....50.000	01656.....55.000	01657.....50.000	01658.....55.000	01659.....50.000
01660.....55.000	01661.....50.000	01662.....50.000	01663.....50.000	01664.....50.000	01665.....50.000	01666.....55.000	01667.....50.000	01668.....55.000	01669.....50.000	01670.....55.000	01671.....50.000	01672.....50.000	01673.....60.000	01674.....50.000	01675.....50.000	01676.....55.000	01677.....50.000	01678.....55.000	01679.....50.000
01680.....55.000	01681.....50.000	01682.....50.000	01683.....50.000	01684.....50.000	01685.....50.000	01686.....55.000	01687.....50.000	01688.....55.000	01689.....50.000	01690.....55.000	01691.....50.000	01692.....50.000	01693.....60.000	01694.....60.000	01695.....50.000	01696.....55.000	01697.....50.000	01698.....627.000	01699.....20.000.000
64600.....55.000	64601.....50.000	64602.....50.000	64603.....50.000	64604.....50.000	64605.....50.000	64606.....55.000	64607.....50.000	64608.....55.000	64609.....50.000	64610.....55.000	64611.....50.000	64612.....50.000	64613.....50.000	64614.....50.000	64615.....60.000	64616.....55.000	64617.....50.000	64618.....55.000	64619.....50.000
64620.....55.000	64621.....50.000	64622.....50.000	64623.....50.000	64624.....50.000	64625.....50.000	64626.....55.000	64627.....50.000	64628.....55.000	64629.....1.193.000	64630.....40.000.000	64631.....1.193.000	64632.....50.000	64633.....50.000	64634.....50.000	64635.....50.000	64636.....55.000	64637.....50.000	64638.....55.000	64639.....50.000
64640.....55.000	64641.....50.000	64642.....50.000	64643.....50.000	64644.....50.000	64645.....50.000	64646.....55.000	64647.....50.000	64648.....65.000	64649.....50.000	64650.....55.000	64651.....50.000	64652.....50.000	64653.....50.000	64654.....50.000	64655.....50.000	64656.....55.000	64657.....50.000	64658.....55.000	64659.....50.000
64660.....55.000	64661.....50.000	64662.....50.000	64663.....50.000	64664.....50.000	64665.....50.000	64666.....55.000	64667.....50.000	64668.....55.000	64669.....50.000	64670.....55.000	64671.....50.000	64672.....50.000	64673.....60.000	64674.....50.000	64675.....50.000	64676.....55.000	64677.....50.000	64678.....55.000	64679.....50.000
64680.....55.000	64681.....50.000	64682.....50.000	64683.....50.000	64684.....50.000	64685.....50.000	64686.....55.000	64687.....50.000	64688.....55.000	64689.....50.000	64690.....55.000	64691.....50.000	64692.....50.000	64693.....50.000	64694.....50.000	64695.....50.000	64696.....55.000	64697.....50.000	64698.....55.000	64699.....50.000
64690.....55.000	64691.....50.000	64692.....50.000	64693.....50.000	64694.....50.000	64695.....50.000	64696.....55.000	64697.....50.000	64698.....55.000	64699.....50.000										
Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak	Amaierak
9110.....130.000	6331.....125.000	572.....25.000	73.....10.000	314.....25.000	5325.....125.000	076.....30.000	9258.....130.000	119.....25.000		180.....30.000	6781.....125.000								
530.....55.000					335.....25.000	436.....30.000	428.....30.000	929.....25.000		630.....80.000									
30.....30.000					15.....10.000	6.....5.000	498.....30.000			0.....5.000									
							48.....15.000												
							8.....5.000												

ZOKKETA HONEK 4.254.120 DEZIMO SARITU ADJUDIKATZEN DITU, GUZTIRA 4.200.000.000 PEZETA

SARI BEREZIA 396.000.000pta. 64630 zk. LEHEN SARIA	FRAKZIOA	SERIA	PILATUTAKO SARIA
	9.	9.	400.000.000